

MAGNOLIA JAUNA

Testua eta irudiak: **QUENTIN BLAKE**

Itzulpena: **EVA LINAZASORO**

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 28,5 cm. 36 or. 15 €.

KATE GREENAWAY DOMINA (1980)

RED HOUSE CHILDREN'S BOOK SARIA (1981)

Magnolia jauna (euskara)

ISBN 978-84-7681-949-4. Kalandraka - Pamiela.

Míster Magnolla (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-249-7. Libros para soñar.

Míster Magnolla (galegoa)

ISBN 978-84-8464-250-3. Tras os montes.

El senyor Magnòlia (katalana)

ISBN 978-84-8464-254-1. Llibres per a somniar.

Magnolia jaunak bota bakarra du.

Bere trompeta zaharrarekin jotzen du: tarara tururu...

Eta txirula jotzen duten bi arreba maitagarri ditu.


Baina, Magnolia jaunak bota bakarra du...

Magnolia Jauna, Quentin Blake handiaren klasiko sariztatua da, 1980an argitaratua. Kontakizun errimatua dugu, pertsonai maitagarri bat ardatz duena. Irakurleek 1etik 10era zenbatu ahal izango dituzte *Magnolia jaunaren* inguruko elementuak.

Humorea eta pertsonaiaren gora-behera txoroak gertatzen dira jarraian liburu alai honetan, oin batean falta duen bota delarik ipuinaren lelo nagusia. Dena aldatuko da, ezustean, paperean bildutako opari bat iristen zaionean...

Magnolia jauna ozenki irakurtzeko liburu aproposa da; erritmoa biltzen du, egitura narratiboak errepikatzen dira eta irudi deskriptiboak ditu. Marrazki deigarri egina, xehetasun eta kolore bizikoak, eszena bakoitzaren adierazkortasuna eta bizitasuna areagotzen dutenak.

Ezaguna da Quentin Blakek bere liburuetan pertsonaia bitxiak sortzeko duen joera. *Angelika Milapatrikaren patrikak* edo eskuartean dugun *Magnolia jauna* horren lekuko dira: konbentzionalismoetatik urruntzen diren pertsonak, musikaz eta naturaz gozatzen dutenak, bere kasa dabilzanak, besteen iritziei erreparatu gabe.



- **Gala:** errimak eta zenbakiak; humorea, jostaketa.
- **Zeln adinetarako:** irakurle hasi berrientzat.
- **Alderdi azpimarragarriak:** testu errimatua; elementuen bana-banako aipamena; irudimena, naturaltasuna; jakin-mina eta ezuste ahalmena; "Angelika Milapatrikaren patrikak" idatzi duen egilearena.

Quentin Blake

(Sidcup, Kent, Ingalaterra, 1932)

Oso gaztetatik hasi zen marrazkigintzan. Londoneko Unibertsitatean eta Chelseako Arte Eskolan egin zituen ikasketak. 20 urtez margotzeari ez ezik, Errege Arte Eskolako irakaskuntzari lotu zitzaion, 1978tik 1986ra, aipatu Eskolako ilustrazio saileko buru izan zelarik. Bere ibilbide artistikoan honako idazle hauek izan ditu bidelagun: Russel Hobban, Joan Alken, Michael Rosen, John Yaoman, eta, batez ere, Roal Dahl ezaguna. Album klasikoetako irudiegile izateaz gain, bere pertsonaiak ere sortu ditu, esaterako, Armitage jauna eta Magnolia jauna. Azken urteotan jasotako sarien artean honako hauek gailentzen dira: Whitebread Saria, Kate Greenaway domina eta Boloniako Azokako Nazioarteko Saria. 2002an Hans Christian Andersen Ilustrazio Saria irabazi zuen, Haur eta Gazte Literaturako maila goreneko saria. 2004an Frantziako Gobernuak Arte eta Letretako Zaldun izendatu zuen.

<http://www.quentinblake.com>



www.kalandraka.com www.Pamiela.com
etxea

comunicacion@kalandraka.com

soltxate@pamiela.com